

---

---

El ilustre principe Bonaparte, cuya escrupulosidad en cuanto se refiere á la ortografía y pureza de la lengua euskara es de todos conocida, ha remitido por medio del Sr. Manterola una lista de rectificaciones á las erratas que se deslizaron al publicar en dialecto Roncalés la traducción que hizo D. M. Mendigacha de la leyenda del Sr. Campion escrita en dialecto guipuzcoano y titulada *Orreaga*.

El principe Bonaparte juzga necesaria, en interés de la ciencia, como en el del mismo Sr. Mendigacha á quien tanto aprecia, que se publique su rectificación, á lo cual accedemos gustosísimos reproduciendo á continuación dicha leyenda tal como debió haberse publicado, y designando con letra bastardilla las palabras que se han corregido.

## ORREAGA.

(DIALECTO RONCALÉS)

### I.

Gay erdia da. Erregue Carlomagno Espinalen dagó vere ejercito *guciuarequin*. Eztago goicoric ez *izarric* ceurian: *urrisaia*rat brillatandei suec mendien *erdian*; Francoec *cautalandei* irian; otsoec marraca eguitandei *Alto-visscarrian*; (1) *uscaldunec* ssorrosstandei veren *asscorac* eta *veren* dardoac Ibañetaco arrietan.

(1) Las dos ss se pronuncian como la ch francesa.

II.

Carcomitruc Carlomagno eztu lóric eguiten; vere pagescoac leitandu amoriozco historia bat; *aminttobat* ur-rinssago (1) Roldan fuertiac *ssaintadú* ezpata *famatiua* Durandarte; vitartio Turpin arzobispo onac errezatandú Jangeicoaren ama *saintiuari*.

III.

Erregue Carlomagno erranzaun: ene pagia ¿cer argumento da cori austanbaitu gayazco issiltarzuna? Jeina,—errespondituzaun *pagiác*.—Dra Iratico usiaren ostoac ichasoa vino andiago airiarequin movitanbaidra. Ah! aur maitia urdudic iltiaren iragoa eta ene viotza lotsatanduc.

IV.

Gaya dago goicoric eta izarric bague; suec brillatandei mendien erdian; Francoec lo eguitendei Espinalen; otsoec marraca eguitendei *Altovisscarrian*; uscaldunec ssorrosstandei veren asscorac eta veren dardoac Ibañetaco peñetan.

V.

¿Cer Arroitu da cori? Berriz *galteguincion* Carlo-magnóc—eta pagia ssa loacartruc, ezaun erresponditu—Jeina, errancion Roldan fuertiac, da mendico ugaltia, da *Andresaroren* ardi salduen marraca. Urduda suspiro bat; errancion erregue Francoc. Cala da, Jeina, errespondituzaun *Roldanec*; *erri conec nessar* eguitendú gutaz guartan denian.

VI.

Carlo-Magno inquietatruc eztu lorik eguiten; *ceuriac* eta lurra *daudé* arguiric bague; otsoec marraca eguitendei *Altovisscarrian*; uscaldunem asscorec eta dardoec Ibañetaco arech *artetan* brillantandei.

---

(1) Las dos tt se pronuncian como las dos ss, pero dominando el sonido de t.

VII.

Ah! eguinción Carlomagnoc, eztoqued loric eguin; calenturac issiguitannú; ¿Cer arroitu da cori? eta Roldan loacartruc, ezaun erresponditu; Jeina, erranción Turpin onác, *errezazazu*, *errezazazu* enequin. Arroitu andi cori dá guerra cantu uscaldunerriarena, eta egun da gore azquen ceuríguna.

VIII.

Iguzquiac mendietan brillatandu, Carlomagno vancitruc ezcapatandá, bere capa gorriarequin eta pluma velchezco birretearequin; *aurrac* eta emaztiac, *danzatandrá* Ibañetan. Eztago ssa extrangeroric, uscaldun errian, eta montañesen irrintziriac ceuriaraino igaitendrú.

